

# GUaiXE.eus




**Koxka taberna**  
Europako  
txapeldun ordea



Kirolak >> 14

**Nafarroako Lauko Sokatira**  
txapelketa Etxarri Aranatzan  
erabakiko da bihar, 17:00etan,  
pilotalekuan



Kirolak >> 13



## Hondakinei Valorg

>>5

**Heldu den**  
urtean eginen  
dute araztegia  
Ziordian

>>5

**Hamaika lore**  
postu izanen  
dira Olaztiko  
azokan etzi

Sasoiko landareekin,  
zuhaixkak, apaingariak  
eta beste

>>5



**Lakuntzan**  
jakiak  
integraziorako  
bitarteko

Txingurriyek sustatu-  
tako egitasmoa >>7



## Hondakin tratamenduari buruzo eskola tailerra

>>5

**Urbizu**  
askatzeko  
eskaria etzi

>>6

**Bikoaren eta**  
taldearen  
jendurreko  
aurkezpena

Altsasuko Gazte 2  
Aste programazioaren  
barruan

>>6



**Emaplaza,**  
emakume  
musikariendako  
aukera >>14



INGENIARITZA GRADUETAKO  
ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

MAIATZAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA  
JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Asier Galarza Zubiria ZORIONAK**  
zure familiaren partetik eta egun ona pasa. Muxu handi bat.



**Asier Galarza Zubiria ZORIONAK** potxolo!! 4 urte!! Handitzen, handitzen... Muxu asko. Etxekoan partez.



**Ferran Sanchez Perianez**  
Ongi etorri, Ferran!! Oso zoriontsu egin gaitu gure valentziar printzearen etorriak!! Musu handi bat zure familiaren partez eta beste bat Saioarentzat!!



**Zaira Salazar Vinagre ZORIONAK** zure 18. urtebetetzean!! Primeran pasa zure egunean eta muxu asko zure familiaren partez.



**Boltio**  
ZORIONAK Boltio! Denon konpromisoz hi, Oihan, Luis ta gainontzeko guziek ETXIA! Maite zaituztegu! Hire lagunak.



## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideak:**

**3,50€**

## maiatzak

# 15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Iñaki eta Jone.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Zartako-k, Sofokao, Kaleginez eta Akort.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 23:00etan Lakuntzako Biltokian.

**Garabatos.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Estu & Larri.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

**Arenna.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Gernika tabernan.

**Ansa ahizpak.** Maiatzaren 17an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Txistu entzunaldi berezia.** Maiatzaren 20an, asteazkenean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Agoitzeko, Irurtzungo eta Uharte-Iruñeko txistu musika** eskoletako ikasleak.

### Antzerkia

**Oso printzesa iletsua.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

**El gran teatro del mundo.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Puntido Teatro.**

### Pailazoak

**Txo, mimak txikia.** Maiatzaren 20an, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.**

### Dokumentalak

**Emarock. Iragana, oraina eta geroa.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

### Zinema

**El nuevo exótico hotel Marigold.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Eulate-Altsasu.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko kultur gune pareetik. 108 km. **Zikloturista taldea.**

**Irantzuko monasterioa.** Maiatzaren 17an, domekan, 7:30ean Altsasuko

Zumalakarregi plazatik. 82 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Ibilbideak

**Botanika ibilbidea. Baso-loreak.** Maiatzaren 17an, igandean, 10:00etan Irurtzungo Plazola hotelean elkartu, Etxeberriko hilerrian hasi. **Gida: Felix Rey Bakaikoa.**

### Erakusketak

**Koldo Arnanzen arte eskola.** Maiatzaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Pintura.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta maiatzaren 17an, igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Emarock.** Maiatzaren 16tik 31ra Etxarri Aranazko tabernetan. **Saioa Cabañas.**

**Pachtwork.** Maiatzaren 17an, igandean, egunean zehar Etxarri Aranazko udaletxeko estalopean.

**Itziar Nazabalen arte eskola.**

Maiatzaren 18tik 31ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Nola dago errausketaren kontua gaur egun?** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Hizlaria: 3MB.**

**Bi estatu eta Euskal Herriaren arteko borroka espesxe politikan.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria: Juan Mari Olano.**

**Jakoba Errekondo.** Maiatzaren 21ean, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Liburu aurkezpena.**

### Literatura

**El arbol mágico.** Maiatzaren 21ean, ostegunetan, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Monica Gallego Hernando idazleak aurkeztuta.**

### Tailerrak

**Album ilustratua.** Maiatzaren 19an, asteartean, 17:30etatik 19:00etara aurrera Irurtzungo Liburutegian. **Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso.**

### Bestelakoak

**Gazte 2 aste.** Maiatzaren 16ra arte Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Ikusi 6. orria.**

**Lore eta landareen VIII. azoka.** Maiatzaren 17an, domekan, 10:30etik 14:00etara Olatzagutiko San Migel plazan (euriarekin, kiroldegian).

**Arakil txirrindulari jantzia.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 17:00etan Ihabarren. **Neurriak probatzeko.**

### Deialdiak

**Errausketarik ez!** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 20:30ean Altsasuko udaletxe aurrean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Hilario askatu! Iheslariak etxera!** Maiatzaren 17an, domekan, 19:00etan Olatzagutian.

**Ostiralero SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.eus

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

### ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,  
Txingurriyeren egitasmoa, Emaplaza,  
Jose Luis Asensio, Uxua Garziandia...

Esataria: *Alfredo*



## JAKOBA ERREKONDO

Maiatzak 21, 18:00etan, Guaixen ON LINE ELKARRIZKETA  
Bidali zure galderak [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez

# ezkaatza >>

### MOTZEAN

## Gaurkoa nekazarien eguna

San Isidro eguna edo nekazarien eguna dela eta makina bat arakildarren topaleku bihurtuko da Egiarretako Itxasperri ermita erromanikoa. Gaur eguerdian meza izanen da. Elizkizunean Arakilgo soro eta larreak bedeinkatuko dira ermita atetik. Bukatzeko, elkartutako guztiei otamena eskainiko die udalak. Arbizon, bestalde, arratsaldean, plazan, auzatea izanen da. Afaltzera ere hainbat elkartuko dira.

## Aralarko erromeriarako prestatzen

Arakildarrek eta irurtzundarrek Aralarko santutegian hitzordua dute maiatzaren 24an. 13:00etan Aralarko aingeruagurtzeko aukera izanen da eta 13:15ean meza hasiko da. Hura despeditzean, 14:15ean herri bazkaria izanen da. Horretara izena eman nahi dutenek bateko edo besteko udaletxeetatik pasa beharko du. Bi udalerrietan erroldatuak daudenek 16 euro ordaindu beharko dute eta erroldatuak ez daudenek 24. Heldu den astelehe-

nera arte dago bazkarirako txartelak eskuratzeko aukera. Bi udalek Aralarrera joateko autobusa antolatu dute. Eguerdian Irurtzungo autobus geltokitik abiatuko da.

## Baso-loreak ezagutzeko botanika-ibilbidea



Joan den urtean estreinakoz Arakilgo eta Irurtzungo udalek botanika ibilaldia antolatu zuten. Felix Rey Bakaikoak gidatuta hamar pertsonen inguruan dauden landareak gehiago ezagutzeko aukera izan zuten. Esperientzia horri segida ematea erabaki dute eta igandeko botanika-ibilaldi berria antolatu dute udalek. Udaberriabete-beteangaudelabaliatuta, Rey baso-loreen inguruko argibideak emanen ditu. Elkartzeko hitzordua, 10:00etan, Plazaola hotelean jarri dute. Handik Etxeberrira abiatuko dira, hilerrian hasiko baitute ibilbidea.

### SAKANA

## Elkar ezagutzan urtzen

Irurtzungo, Uhartte Arakilgo, Etxarri Aranzako eta Altsasuko hainbat jatorritako 40 bat pertsonen batekin zuten kultur arteko txangoan igandean. Haien artean guraso asko, amak batez ere. Ekuadordar, marokoar eta etxarriarrek elkarrekin Uharteko Zamartze ermita bisitatu zuten lehenik. Gidaren azalpen guztiak jaso ondoren, Lakuntzako San Saastin ermitara jo zuten. Ermitan hamaiketako hartu eta haurrekin naturako gauzen bilketa egin zuten. Handik Arruazura jo zuten. Iturgain elkartearen ondoko belardian bazkaldu zuten eta, musika lagun, jolasten eta loreak aldatzeko tailerrean aritu ziren. Ibaian freskatzeko aukera izan zuten. Elkar agurtu aurretik guztiendako dominak izan ziren, guztiak elkar ezagutzan irabazle izan baitziren. Urtean gutxienez bi txango antolatzeko eskaera luzatu zioten parte-hartzaileek Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko teknikari Bego Zestauri. Heldu den urterako plangintza berrituko zutelako aurreratu zien.

### SAKANA



Flash-mobaren ondoren trikitilarien doinuak zabaldu ziren Olaztin.

## Giro aparta Sakanako eskolen festan

Larunbatean Sakanako ikastetxe publikoen mosaiko koloretsua zabaldu zen Olatzagutian. Bertso eta dantza bidezko agurra egin zuten eskolako haurrek festara hurbildu zirenei. Giro ederrean elkartu ziren makina bat sakandar: Guraso elkarrekin bakoitzak bere ekarpena egin zion jaiari bere tailerarekin. Bateko eta besteko haur eta gurasoak hurbildu ziren haietara. Elkarrekin ere aritu ziren: flash-mob jendetsuan, immigrazio zerbitzuak antolatutako ekintzetan, buruhandiek, pailazoekin eta beste hain-

bat jardunetan, ospakizunaren leloak zioen moduan: Sakanako herri-  
eskolekin sortzen.

Antolakuntzaz arduratu zen Olatzagutiko eskolatik esan digutenez, "eguraldiak lagunduta giro aparta nagusitu zen herriko plazan eta inguruan". Eskolatik festa aurrera ateratzeko lan egin zuten guztiei baita parte-hartzaileei ere eskerrak eman dizkiete. Heldu den urte festa antolatzeko lekukoa Irurtzungo Atakondoa eskolari pasa zioten, "onena opatzearekin batera".

# SAKANDARROK garaile!

## EMAN BOTOA

# ehbildu

Leihoak ireki



Alfonbrak altxa



Norabidea aldatu



### EKITALDI NAGUSIAK

- M-15, Ziordi: 19:30, herriko plazan
- M-15, Olazti: 20:00, San Miguel plazan
- M-16, Bakaiku: 21:30, afaria
- M-17, Arbizu: 13:00, herriko plazan
- M-17, Etxarri: 13:00, herriko plazan



Raf Atxuri

## Obama eta Kuba: ez duk erraza konpai

**astekoa**

Agian duela urte batzuk Chávezek Obamari eginiko opariak, hots, Galeanoren *Ameriketako zain irekiak*, eraginik eduki zuen. Kontua da orain aste batzuk AEBetako presidentek Kuba dela-ta adierazi zituenak barra eta izarren inperioko zain batzuk ederki astindu dituela. Vietnam, Afganistan, Guatema-

la, Panama, Txile, Granada nahiz Nikaraguan eta beste herri anitzetan gauzatu dituzten txikizio, sarraski eta kalteak zibilizazioa eta askatasuna ekartzeko asmoz eginak ziren, nork zalantzarik egin? Kuban inbasiorik edo estatu kolperik ezin izan zuten burutu, baina bestelako estutze bide ankerrak martxan

jarri zituzten. Eta horra, 50 urte geroago estatubatuar presidentek batek kolokan paratu du Kubaren alderako mardulena. Washington, Jefferson, Lincoln, Monroe... Nixon, Clinton, Bush junior eta senior elkarri begira sinetsi ezinda... Hau ikuskizun dekadentea! AEB (beraiek Amerika esango luketena) atzeko

patioko nano baten aurrean belauniko isolamendu politikak uharte matxino musker hori makurtzea lortu ez duelako. Ikuskizun dago oraindik zein ondorio zehatz ekarriko dituen urte batzuk barru AEBetako jarrera berriak. Eta oraingoan ere kubatarren ohiko esamoldeak lagunduko digu hau guztia

zertxobait ulertzen: ez duk erraza konpai! Kuban inoiz ez da deus erraza suertatu, ez orain 100 urte, ez orain 65 edo 15 urte. Eta ez dirudi 5 edo 20 urte barru hala izango denik. José Martíren amets humanista, ordea, bizirik dago eta amets horretatik gertuago egon litezke etorkizun hurbilean.

## barrutik kanpora

### Galdeketa: ez ordaintzeko aitzakia

Zenbait aseguru-etxe polizaren galdeketa aitzakitza erabiltzen ari da bezeroari dagokion estaldura ez ordaintzeko, batez ere osasun-aseguru edo bizitza-aseguruetan. Heriotza, gaixotasuna edo etxeko istripu gertatu ondoren konpainiek milaka eurotako kalte-ordainketak ordaintzeari

uko egiten diote esaten dutenez kontsumitzaileak aseguruaren kontratazioarako informazio garrantzitsua ezkatatu edo faltsutu zuelako. Dena dela, askotan konpainia beraren galdeketa buruzko informazio eza edo komertzializatzeko irregularra da egoera eragin duena.

Sarri, aseguru-etxeek argudiatzen dute kontsumitzaileak poliza sinatzerakoan aurretik zeuden gaixotasunak ez zituela aipatu, edo etxeko balioa eta arriskuen berri ez zuela eman. Batzutan, aurretik zegoen gaitzak ez du oraingo gaixotasunarekin zerikusirik. Hau da konpainia baten kasua, zeinek adierazi gabeko belaun lesio batengatik kardiobaskular azterketa bat ordaindu ez zuena. Bertze batzuetan gertatzen denak ez du harremanik ustez izkutatuak direkin, adibi-

dez etxeko hodia lehertu eta ateraden urak kaltea eragiten badu. Aseguru-kontratuaren legeak ezartzen du izenpetzaileak egoerak eta arriskuak galdeketa araberaren adierazi behar dituela. Esplizituki ezartzen du kontsumitzailea "betebehar honetatik libre izango dela" konpainiak ez badio espresuki galdeketa egiten edo gaia ez bada azaltzen. Batzutan, galdeketa kontsumitzaileari aurretik beteta ematen zaio polizaren agiri guztien artean, horri buruz espresuki ezer

esangabe. Kontsumitzaileak aseguru sinatzen du galdeketa buruz ezer jakin gabe. Geroago aseguru-etxeak kontsumitzaileak aurretik jakinarazi ez duen zerbait aurkitzen badu, hori adierazi ez zela argudiatzen du ez ordaintzeko. Batzutan, konpainiak ez du estaldura ukatzen, baina kopurua gutxitzen du adierazi gabeko egoerari buruz jakinaren gainean egonda prima igoko zen proportzio berean.

**Iraxte**

## hara zer dien

### Libre mugitu eta asilorako eskubidea norentzat?

Kontakizun ofizialek diotenaren arabera, itsas ertzetara iristen diren paterak etorkinenak dira. Baina hori ez da guztiz egia, gero eta gehiago baitira Europako kostetara datozen errefuxiatuak, eta ez etorkinak, gerrate eta jarraipen politiketatik ihesi iristen diren errefuxiatuak baizik. Mugarik gabeko dimentsioak hartu dituen tragedia humanitariobaten aurrean gaude. 800 pertsona desagertuta Mediterraneoan soilik, duela ez asko. Ez dira lehenak, eta tamalez, ez dira azkenak izango. Orain artean emandako irtenbideak harresiak indartzera mugatu dira, honen ondorioa heriotzen gorakada izan delarik.

Europar sartzeko bide legal eta ziurren eskasiaren aurrean, Europar Batasunak irtenbide bakarra uzten die gertatutako ihesi eta haien lurraldeetatik ateratzen diren pertsonen: mafiekin harremanetan jartzea, Europako kostetara iristeko eta asiloa eskatzeko.

Espainia bezalako lurralde batzuetako arduradun politikok batzuk zalantzan jarri dituzte hainbat tokitan eman diren erreskate ekimenak, "efecto llamada" sortzeko kezka argudiopean. Horri helduta, gobernariak duten biziak salbatzeko betebeharrari bizkar ematen diote. Modu horretan gero eta gehiago izango direla etorriko direnak kontutan hartzeari uko egiten dioten bezala. Portarahauek oinarritzko balioetatik at uzten dute Europa bera: giza duintasunari eta giza eskubideei errespetua; elkarbizitza ezinbestekoak diren balio moral eta etiketatik at jartzen dute Europa.

Horregatik, Europak:  
-Naufragioek ekartzen duten dramari bukaera emanen dioten neurri zehatzak hartu beharko ditu.  
-Asilo eskubideak dakartzan erizpideekin bat egin beharko du.  
-Politika migratorioak berriro beharko ditu, migrazio legal eta segururako bideak irekiz.  
Neurri hauek egi ez diren bitartean, emango diren heriotzen erantzunkizuna, drama honi bukaera emango dioten neurriak hartu ez dituzten ordezkari politikoen izan da.

**Immigrazio zerbitzua**

## gutunak

### Hilario libre, konponbidea orain!

Jon Zufiaurre eta Maitane Intxaurre, Sakanako Sorturen izenean

Hilario Urbizu olaztiarra Mexikon atxilotu dutela jakiteak astindu latza eman digu. Berrogei urte pasa dira bere herria utzi behar izan zuenetik, ez du "demokraziarik" ezagutu. Euskal exilioak suposatzen duen dramaren adibide gordina.

Hilarioaren atxilotzea Espainia eta Frantziaren oldarraldi errepresiborribaten testuinguruan eman da: gazte independentisten aurkako epaiketa, sententzia eta espetxeratzeak (torturarekin lortutako auto inculpazioak medio); gaixo dagoen Ibon Fernandez Iradi preso espetxean mantentzeko erabakia, Espainiako hainbat komunikabidek (El Mundo, La Sexta...) azkartu duten toxikazio kanpaina...

EZ da kasualitatea eraso guzti horiek egiteko aukeratu duten uena. Bat, Euskal Herrian kon-

ponbidearen eraikuntza errazteko helburua duten ekimen berriak plazaratu direnean (EH Bilduren Bake-rako Euskal Bidea proposamena, ETAK bere azken agirian berresten zuen prestutasuna...). Eta bi; Erregimenarentzat klabeak diren hauteskunde batzuen atarian.

Beste behin ere, Estatuak bortizkeria erabiliz irabazi nahi dute lehia politikoa galtzen ari direna. Ondorio garbia guretzat ere: Estatuak garaitzeko, biderkatu dezagun gure konpromisoa, metatu ditzagun indarrak Euskal Herrian eta nazioartean, garatu dezagun aske izateraino eramangaituen Euskal Bidea... Maiatzaren 17an, arratsaldeko 19:00etan Olaztik kaleetan eta Maiatzaren 24an hautestontzietan ditugu hurrengo hitzorduak.

### Euskararen etsaiak, botoak eta propaganda

Joseba Beltza Bengoetxea, Etxarriko EHE

Euskararen etsaiak dira euskararen beldur direnak. Badakite euskal hiztunen kopurua handitzeak euskal identitatea indartu dezakeela eta horrek espainiar nazio proiektua ahuldu edo arriskuan

jar dezakeela. Euren ere euskara ondasuntzat dutela esanen dute, baina hiltzorian eduki nahiko dute. Hala, euskarazko hedabideei eta euskarazko kultur ekoizpenari diru-laguntzak kenduko dizkiete, administrazio lanetarako ez dute euskaldunak kontratatuko, Dereduaren kontra egiteko ingeleseko ereduak asmatuko dituzte, Nafarroaren zonifikazioa defendatu eta zonalde bakoitzeko legegida are gehiago bihurrituko dute, UEMAn dauden herriak UEMAtik ateratzen saiatuko dira...

Euskararen etsaiak.  
Euskaldunok, euskaltzaleok, ez diegu gure botorik emanen. Eta horretaz gain, Etxarri ekimen bat jarri dugu abian hauteskundearen harira: maiatzaren 22an, ostirala, 19:30ean elkartzeko gara plazan euskararen etsaiak diren alderdien propaganda-orriak postontzira botatz bultzatzen bidaltzeko. Propaganda erdara hutsez bidali digutena adibidez, eurek mugaturiko "zona vascofona" honetarako gutunetan ere euskara baztertzeko lotsagabekeria dutenena.  
Ekarri propaganda hori guztia Etxarriko plazara maiatzaren 22an, euskaltzale. Batera esanen diegu gure kontrako politika eta mespretxurik ez dugula onartuko.

**Guaixe**


**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**
**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuzordeta

ALTSASU

**PRIMITIBAK 10.000 EURO ALTSASURA.**  
Ilgandean Loteria Primitibako Jocker jokoak  
10.000 euroko saria utzi zuen Altsasun. San

Juan kaleko loteria saltokian zigitatu zen  
txartela. Saltokiko kudeatzailea aldatu dene-  
tik orain arte eman duten sari handiena da.

# sakanerria >>

SAKANA

## Mank-ek hondakinen kudeaketa eskola tailerrera diru-laguntza jaso du

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) asteartean jakinarazi zenez, hiri eta industria hondakinen kudeaketa integralerako enplegu eskola tailerra diru-lagunduko du. 128.620 euro emanen ditu horretarako. NEZek jakinarazi duenez, diru-laguntzaren erdia Europako Gizarte Funtsak finantzatu du. Sakanako Mankomunitateak sustatu du eskola tailer hori Kerabi Gestion Medioambiental, S.L. eta Vermican Soluciones de Compos-

taje, S.L. enprekin batera.

Eskola tailerrak 6 hilabeteko iraupena izanen du eta Altsasun egingen da. 15 pertsona ariko dira, langabezian luze daramaten hamar eta 30 urte baino gutxiago duten bost gazte. Zuzendari eta prestatzaile baten esanetara ariko dira.

Europako Batasunaren datuak eskutan, Mank-etik argudiatu dutenez, birziklatzearen hazkundeak lanpostuen sorrera

ekarriko du. "Horretan gakoa da materia organikoaren kudeaketa zuzena". Hondakin mota horren kudeaketak lanpostuak sortzeko aukera ematen duelako, beraz, langabeak horretan trebatzeko enplegu tailerrera diru-laguntza eskaera egin zuen. Joan den urteko deialdian Mank-ek ez zuen laguntzarik jaso, bai, ordea, 2011n eta 2012an; baso lanetarako enplegu tailerrak egin ziren orduan.



Baso lanei buruzko enplegu tailerreko bilera bat. Egun 3Dkoa egiten ari dira.

### Lore eta landare eskaintza zabala, azokan

**Domekan, 10:30etik 14:00etara**  
**Olatzagutiko San Migel plazan**

Olatzagutiko Udalak zazpigarrenez lore eta landare azoka antolatu du. Hamaika salmenta postuk euren eskaintza egingen diete azoka bisitatzen duten guztiei. Lore eta landareez aparte, lorontziak, aromaterapia, lorezaintza, natur kosmetika, erlezaintza, sendabelarrak eta beste izanen dira. Eguraldiak lagun-duko ez balu azoka Erburua kiroldegian egingen litzateke.



Iazko azokako postu bat.

## Europako Valorg proiektuko kideen bilera

**Frantzia, Belgika, Txipre, Eslovakia eta Sakanako ordezkariak biltzen dituen Valorg proiektuko ordezkariak Altsasun elkartu dira, atzotik bihar arte. Lanpostuak sortzea helburu duen Europako proiektuaren nazioarteko bigarren bilera izanen da**

Sakanako Mankomunitatea hondakin organikoaren balioztatzearen inguruko Europako Valorg proiektu bateko kide da. Europako Batasunaren prestakuntza bidezko lan sorkuntza markoaren barruan, Progress programan kokatuta dago proiektua eta 18 hilabeteko iraupena du. Proiektuko kideek aurreneko bilera otsailean egin zuten Strasburgon. Ondoren tokian tokiko proiektuak ezagutzeko bisita erronda hasi dute, lehen geldialdia Sakana, Altsasu, izanik. Irailean Txipren elkarte-koak dira.

Batzukonpostalantzenari dira, besteak biogasa. Herrialde bakoitzeko proiektua aurrera eramateko erakundeek, unibertsitateek eta enpresek clusterrak sortu dituzte. Aipatu bileretan cluster bakoitzak bere proiektuaren garapenaz eginen azalduko du. Aldi berean, guztien artean helburuak eta egitasmoak partekatuko dituzte.



Altsasuko Gure Etxea eraikinean bildu dira proiektuetako kide europarrak.

Aldi berean, hainbat lan talde sortu dituzte: ebaluazioa, lan berdea, lanpostuen prestakuntza eta materia organikoaren berreskurapena. Haien egitekoa hurrengo pausoak zehaztea eta prozedura eta protokolo komunak finkatzea da. Baina ez dira Gure Etxea eraikinetik atera gabe geldituko. Atzo arratsaldean Arazuriko eta Noaingo materia organiko kudeatzeko azpiegiturak bisitatu zituzten. Bihar arratsaldean, berriz, Altsasu inguruetan barnako bisita gidatua izanen dute,

ingurua ezagutzeko.

### Valorg proiektua

Materia organikoaren kudeaketaren inguruan lanpostuak sortzeko aukerak eta hezkuntza aldetik dauden beharrak eta aukerak aztertzea da proiektuaren helburua. Sakanako Mankomunitatea buru duen clusterrean Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), Sakanako Garapen Agentzia eta Vermican eta Kerabi enpresak daude.

### Sakanako bost helburuak

Proiektuak langileen perfilak eta materia organikoa ondo kudeatzeko behar diren hezkuntza programak garatu nahi ditu:

- Arbizun konpost planta bat sortzen bada, hura kudeatzeko beharko liratekeen langileen perfilak aztertu eta hezkuntza programa bat garatu. Hondakinen kudeaketa integralerako enplegu tailerrarekin lotuko da.
- Sakanan auzokonpost boluntario sare sortu eta NUPen bidez hezkuntza zertifikatu ofiziala emateko aukerak aztertu, eta hezkuntza programa garatu.
- Materia organiko sortzaile handiendako hezkuntza programa garatu, Arbizun konpost planta aurrera ateratzen bada hara doan materia organikoaren kalitatea eta kantitatea handitzeko.
- Materia organikoaren kudeaketaren inguruko NUPen uda ikastaroak Sakanan egin.
- Konpost plantaren produktuen merkatu potentzialak aztertu.

Ziordia

## Ur araztegia heldu den urterako

Nilsa enpresa publikoak Ziordiko Udalarari hondakin urak tratatzeko planta egiteko lizentzia eskatu dio. Jesus Arrese Galbete alkateak azaldu digunez, Nilsak 2016an lanak egin eta martxan jarri nahi du. "Ziordikoa, araztegi txikia izanen da". Alkateak lana beharrezkoa dela adierazi digu, "gauregun Mirari kale ondoan dagoen hobi septikoan biltzen dira ur zikinak. Usai-

nak sortzen dira eta ur beltzak ibaian bukatzen dute. Aldian behin, hobi septikoa garbitzeko Nilsak kamioia bidaltzen du".

Araztegi berriak horrekin bukatuko du. Texeria bidean, Olatzagutiarako bidean, Ziorditik 600 bat metrora egingen du Nilsak araztegi berria. Hobi septikotik hara luzatuko du hodia. Araztegiak urak garbitu ondoren ibaian bukatuko dute.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

**ALZATE ERAIKUNTZAK** S.L.

Zubetia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionalazate.com

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

## Lakuntza

## Odol emaileen festa



Aitortza jaso zuten odol-emaile guztiak.

**Igandean dominak banatu zituzten odol emaileen artean. Horrekin batera Uxua Garciandia ordezkari berriaren aurkezpena egin zuten**

Larraitz Amadoz Lazkano

Eguraldi ona lagun izanik, zilarrezko zein urrezko dominen bidez Lakuntzako odol emaileak omendu zituzten igandean. Oso-

tara 131 emaile daude Lakuntzan 2014 urteko datuak kontuan hartuz gero. Odola ematearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten egindako ekitaldian. Elkartasun ekintza honek pertsona askoren osasunean modu ezberdinean lagundu dezake eta horretaz ohar-

tarazi nahi dituzte, besteak beste, gazteak.

## Aitortzak

Meza eta gero elizan dominak banatzeko ordua iritsi zen. Lehenik, zilarrezko dominak banatu zituzten, hogeita bost baino gehiagotan odola emateagatik. Hauexek jaso zuten domina: Javier Betelu, Maria Mar Cartagena, Antonio Flores, Miguel Irurzun, Rosa Saez de Adana eta M. Lourdes Sagastibeltza. Urrezko dominak berrogeita hamar baino gehiagotan odola emandakoen artean banatu zituzten: Jose Miguel Flores, Juan Isidro Gaya, Ana Mary Lopez eta Kristina Uzkudun izan ziren izendatuak. Urrezko domina bikoitza Pello Egurzak jaso zuen ehun baino gehiagotan odola emateagatik. Dominen banaketa eta gero lunch-az gozatzeko aukera izan zuten kultur etxeko tabernan.

+ 16. orrian eta [www.guaix.eus](http://www.guaix.eus)

## Olatzagutia

## Urbizu askatzeko



Urbizuren lagun eta hurbilekoek manifestaziora joateko deia egin dute.

**Igandean, 19:00etan, Olatzagutian Hilario askatu! Iheslariak etxera! leloa duen manifestazioa egin da**

Hilaren 6an atxilotu zuten Mexikon Hilario Urbizu San Roman iheslari olaztiarra. Hura atxilotzeko nazioarteko agindua emana zuten Espainiak Auzitegi Naziona-

leko Instrukzioko 1. epaitegiak. Urbizu Mexikon espetxeratuta dago, epaileak Espainiaren estradizio eskaera aztertu bitartean. Atxiloteta salatze eta Urbizuren askatasuna eskatzeko etzirako manifestazioa deitu dute Olatzagutian. *Hilario askatu! Iheslariak*

*etxera!* leloa izanen du.

Urbizuren lagun eta hurbilekoek jakinarazi digutenez, "kezkatuak" daude, "haren egoera delikatuak ezagutzen dugulako eta ziur gaudelako atxilotetak bere gaixotasunaren garapenean oso negatiboki eragin duela". Urbizuren lagun eta hurbilekoek ez dute ulertzen epaileak ebazpena eman bitartean Urbizuk "zergatik egon behar duen etxetik eta tratamendua jasozten duen ospitaletik ehunka km-tara". Mexikoko Gobernuak olaztiarra espetxeratzeko hartutako erabakia "justifika ezintzat" jo du, "haren tratamenduaren jarraipena eta beharrezko osasun arreta ez baitu bermatuko". Presoaren lagun eta hurbilekoendako espetxeratzeko eta estradizio eskaera "zigor gehigarria dira eta giza eskubideak larriki urratzen dituzte". Azkenik, Urbizu aske uztea eta sakan-darrak igandeko manifestazioan parte hartzea deitu dituzte.

## Altsasu



Gazteek eta Itziar Nazabalek murala egin zuten larunbatean.

## Gazteendako ekintzak intxostiapuntan

Lehiaketak, mural margotzea, dantza eta kirol erakustaldiak eta zine-forumak izan dira orain arte Gazte 2 aste egitarauan. Altsasuko Udaleko Gazteria Sailaren eskaintzak asteburuan segida du. Musika izanen da nagusi (ikus 15. orria). Baina gazte afaria eta kartetan aritzeko aukera ere eskainiko ditu.

## Egitaraua

**>> Maiatzak 15, ostirala 19:00etan** Iñaki eta Joneren kontzertua.

**>> Maiatzak 16, larunbata 17:30ean** Mus txapelketa, 16 urtetik gorakoendako. 5 euro bikoteko. **21:30ean** Afaria. **23:00etan** Garabatos taldearen kontzertua.

## Altsasu

## Errausketaren aurkako astea

*Amalurraren defentsan, errausketarik ez!* leloa du rrausketaren aurkako asteak, asteartean hasi eta bihar bukatuko dena. 3 Mugak Batera plataformak eta Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta dute. Olatzagutiko porlandegiak ekoizpen prozesuan erregai gisa hondakinak erabiltzeak, besteak beste, naturan eta osasunean dituen ondorio kaltegarriez aritu dira astean zehar. Baita bestelako energia eredu baterako proposamena zabaltzen ere.

## Egitaraua

**>> Maiatzak 15, ostirala 19:00etan** Nola dago errausketaren kontua gaur egun? Hizlaria: 3MB. Gure Etxea eraikinean.

**>> Maiatzak 16, larunbata 10:30ean** Iruñera joateko hitzordua autobus geltokian. **12:00etan** Erregimena kanpora manifestazioa Iruñean. **14:30ean** Bazkaria Zubi-ondo elkartean. Ondoren, herrian barna, parodia. **20:30ean** Kontzentrazioa udaletxe parean. **23:00etan** Kontzertua: Estu & Larri. Gaztetxean.

## Etxarri Aranatz

## Errekondo baratzari buruzko liburua aurkeztera

**Ostegunean, 19:00etan, Etxarri Aranatzko liburutegian**

Jakoba Errekondo paisajistak *Bizi Baratzea garaian garaikoa eta garaiz* (2015, Argia) liburua argitaratu berri du. 37 baratzkiri buruz jakin beharreko guztia erakusten du bere liburua. Bakoitza lantzeko lur mota eta sasoi egokiena, ur eta argi beharra, izurriteez babesteko moduak, aldamenean eduki behar dituen lagunak... horretaz aritzen da Errekondo liburuan. Mandoibai elkarteak antolatutako prestakuntza eta elikadurari buruzko saioen barruan kokatzen da Errekondoren aurkezpena.

## On-line elkarrizketa

Etxarri hitzaldia eman aurretik, 18:00etatik 18:30era, Jakoba Errekondo Guaixeren erredakzioan izanen da. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez jasotako galderak erantzun dituzte Errekondok web orrian.

## SAKANA

## UGTn behin behineko koordinatzailea

Sakanako UGTko koordinatzaile David Medina ibarreko ardurak utzi eta sindikatuaren Metalaren, Eraikuntzaren eta Gertukoaren Federazioan lan egitera pasa da, Iruñean. Haren ordeztu, behin behinean, Lizarrako idazkari Javier Nicuesak koordinatuko du Sakanako sindikatu. Asmoa, hala ere, ardura horretarako afiliatusakandar bat opatzea da. Nafarroako UGTren egituraren berregituraketaren eta sinplifikazioaren ondorio da altsasuarraren ardura aldatzea.

## Altsasu

## Pailazoaren bisita

AGAk aurtenera Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Altsasura gonbidatu ditu. Asteazkenean izanen dira gure artean, 17:00etan, Burunda pilotalekuan. Sarrerak dagoeneko lortia kultur gunean zapi eurotan salgai daude.

**2 KAJOIDUN OHE**

**%40 ko deskontuarekin + koltxoia OPARI**

**POS COROSTI**

**AZKEN EGUNAK**

948 563 199  
ALTSASU

## » Lakuntza

# Janaria probestu etorkinak integratzeko

**Lakuntzako igerilekuetako sukaldean udaratik aurrera emakume etorkinek catering zerbitzua emanen dute, proiektu integratzaile baten inguruan sortu den egitasmoari esker**

Larraitx Amadoz Lazkano

Txingurriye taldea duela sei urte sortuzen, lakuntzar berriak herrian integratzeko. Hasiera batean, eskolan umeen arteko harremana sortzeko helburuarekin aritu ziren lanean eta denborarekin aisialdian lan egitea otu zitzaizen ere. Umeek integratzeko askoz ere behar gutxiago zutela konturatu ziren, eta familien eremuan lan gehiago egin behar zela antzeman zuten. Hausnarketa hori egin ondoren, Txingurriye taldeak bere ekimenak familien eremura bideratu zituen. Nafarroako Unibertsitate Publi-

koan (NUP) gizarte arloan lan egiten duen Izaskun Andueza irakasle lakuntzarraren laguntzari esker proiektu berri horri indarra ematea lortu zuten. Anduezak Sakanako eta Lakuntzako etorkinen inguruko ikerketa bat egin zuten. Hala sortu zen duela urte batzuk Txingurriyek antolatutako integrazio elkartasun eguna. Ekintza horri bultzada ematea pentsatu zuten Txingurriye elkarteak, elkartasun egunari segida eman zioten, tailerrek eginez, inauterietan balkoiak apainduz eta abar.

## Igerilekuan

Ekimen guztiek bertako eta kanpoko herritarrek nahastea, biltzea, dute helburu, funtsean. Joan zen urteko udazkenean, Unesco Kate-



Lakuntzan ospatutako integrazio eta aniztasun festa. ARTXIBOA

drak unibertsitatean lana sustatzeko lehiaketarako proiektu bat aurkeztu zuen Anduezak, NUPeko ekonomia arloko irakasle den Mar-

tin Larrazarekin batera. Etorkinen lana bultzatzeko asmoarekin enpresa egitasmoa aurkeztu zuen. Proiektu horren abiapuntua

jakiak prestatzea izanen litzateke, emakume etorkinak elkartu eta gizarteratzeko. Hasiera batean egindako jakiak, pastak... catering moduko bat sortzea zen asmoa, azoketan saldu ahal izateko. Ideia horrek forma hartu zuen aurrerago, eta gaur egun egitasmoa burutzeko oso gertu daude.

Lakuntzako Udalean igerilekuetako taberna erabiltzeko proposamena egin zuten Txingurriyetik, sukalde erabiltzeko eta janari zerbitzua emateko asmoz. Udalak baiezkoa eman die, eta udaran bertan izanen dira, zerbitzu hori ematen. Aurrera begira, gainera, luzatzeko aukera emanen diete proiektuak etenik izan ez dezan. Haiekin batera beste herritar batzuk izanen dira lanean, nahasita.

## » SAKANA

## Garalur erronka berriei begira jarri da

Cederna-Garalurren aurtengo aurrekontua aho batez onartu zuten Irurtzun enegindako batzarrean. Jose Mari Aierdi presidentek azaldu zuenez, zorren amortizazio abiltzende elkarrekin, eraginkortasuna hobetzeko. Garalurreko gerente berriak, Ibon Mimentzak, aurtengo lan plana aurkezterakoan Landa Garapenerako Programan aldaketak izanen direla gogorarazi zuen eta 2014 eta 2015 urteak trantsizio urteak izan zitezkeen. Garalurren aurrera begirako asmoen artean daude eskualdeetara gerturatzeko prozesuan sakontzea. Garalur azken urteetan berregituratu egin da eta, aldi berean, tamaina lurraldera egokituak. Batzar berean Garalurrek bere Berdintasun Plana onartu zuen. 2012an hasi ziren lantzen eta besteak beste jaso du, esaterako, elkartearen gobernurako organoen berdintasuneko osaketa eratzeko konpromisoa. Mimentzak esan zuenez, "berdintasun plana, genero berdintasuna erakundeak integratzeko tresna egokia da, jakinik ere nekazal munduaren garapena emakumearen parte hartzearen eskutik datorrela, baita landa eremuko botere egituretan gizon-emakumeen parte hartze orekatutik ere".

## » SAKANA

# Laugarren hilabetez behera egin du langabeziak



Langileak Iturmendin lanean. ARTXIBOA

**44 sakandar gutxiago daude Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda, 1.462 guztira. Sakanako langabezia 1500 langabetik behera egon zen azken aldia 2011ko maiatzean izan zen, 1.421.**

Urtea hasi zenetik Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena eman duten sakandarren kopuruak 177an egin du behera, apirila akaberan 1.462an gelditu arte. Duela urte bat baino 241 pertsona gutxiago daude

lan bila Sakanan. Nafarroako populazioaren %3,19 izanik langabeen %3,15 dira ibarrekoak. Emakumezkoak dira langabe sakandar gehienak, 828 (%56,63 eta aurreko hilean baino 11 gehiago). Gizonezko langabeak, berriz, 634 dira (%43,37 eta 55 gutxiago).

Adinari dagokionez, 45 urte edo gehiago dutenen tartea da langabe gehien biltzen dituen, 678

## Langabezia herrika

Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	39	-13
Irurtzun	166	8
Irañeta	8	-1
Uhartea Arakil	47	-5
Arruazu	3	-1
Lakuntza	63	3
Arbizu	57	-8
Ergoiena	12	-2
Etxarri Aranatz	141	5
Bakaiku	14	0
Iturmendi	23	-2
Urdiain	29	0
Altsasu	723	-26
Olatzagutia	113	-2
Ziordia	24	0
<b>Sakana</b>	<b>1.462</b>	<b>-44</b>

(%46,37 eta 30 gutxiago). Ondoren daude 25 eta 44 urte arteko 644 langabeak (%44,05 eta 21 gutxiago). Lan bila dabilen 25 urtez azpiko gazteak 140 ziren apirila akaberan (%9,58 eta zazpi gehiago).

## Sektoreka

Langabe sakandar gehienek, 877, zerbitzuen sektorean lan egin nahiko lukete (%59,99 eta aurreko hilean baino 25 gutxiago). Industria-rako lan eskatzaileak 350 ziren (%23,94 eta 24 gutxiago). Eraikuntzan aritzeko eskaerak 98 ziren apirila akaberan (%6,7 eta bederatzi gutxiago). Lehen sektorerako eska-

## Kontratuak

Apirilean sakandarrek 588 kontratu sinatu zituzten, martxoan baino 59 gutxiago. Gizonezkoek 302 sinatu zituzten (%51,36 eta 81 gutxiago). Emakumezkoek, berriz, 286 kontratu sinatu zituzten (%48,64 eta 22 gehiago). Kontratu motari dagokionez, erabiliena aldi baterakoa da, sakandarrek apirilean halako 554 sinatu zituzten (%94,22 eta aurreko hilean baino 21 gutxiago). 19 kontratu mugagabe bihurtu ziren apirilean (%3,23 eta zortzi gehiago). Hasieratik 15 sakandarrek kontratazio mugagabea izan zuten apirilean (%2,55, aurreko hileko kontratazio kopuru bera). Zerbitzuak (%55,44) eta industria (%42,18) arloak dira kontratazio gehien egiten dituztenak. Nafarroan apirilean sinatu ziren 26.042 kontratuetatik %2,26 sakandarrenak ziren.

tzaileak 40 ziren (%2,74 eta sei gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopurua 97koa zen (%6,63 eta zortzi gehiago).

## » Etxarri Aranatz

## Kontu likidazio positiboa eta mugak

Joan den urteko kontuen likidazioa egin ondoren, Etxarri Aranatzko Udalak jakinarazi du joan den urteko kontuak 153.774,15 euroko emaitza positiboarekin despeditu zirela. Udalak jakinarazi duenez, gastu orokorretako diruzaintzako gerakina 888.520,34 eurokoa da, zor bizia, berriz, 1.185.000 euro, haietatik 610.000 euro maileguak dira. Udalaren zorpetze maila

%6,17 zen eta zorpetze muga %16,99.

Alkate karguan den Eneka Maiz kexu azaldu da Aurrekontu Egonkortasun Legearekin, "inposatzen dituen mugengatik ezin izan den dugu hori guztia herritarren beharretara bideratu". Udalak erabili ahaliko duen dirua Utzubar Txikiko urbanizazio lanak ordaintzeko eta, agian, diruz lagundutako sare elektriko bideratzeko. Aurreikusitako gabe zeuden herrian eta dermioko bideetan konponketak egitea ere, eta lan batzuk ere egin dira.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneretik ostiralera  
**Eguneko menua 8,25€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauek

**PORTUKO**  
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

## Hauteskundeak

## &gt;&gt; Altsasu

# EH Bilduk publikoaren kudeaketan herritarren parte hartzea sustatu nahi du

Adolfo Araiz presidente-gaia bertan zela Altsasuko EHBildukudalerako bere zerrenda aurkeztu zuen. Zerrendako gazteek, Haizea Ramirez De Alda Pozuetak eta Iñaki Romero Torresek, udal jardunean esperientzia faltaren aurrean herri mugimendutan eta elkarteetan duten eskarmentua aldarrikatu zuten. Bestalde, gazteendako alokairu soziala eta Sakanan lanpostua izateko lan egingen dutela azaldu zuten.

Miren Arantza Bengoetxea Intxausti alkate-gaiak, aldiz, duela lau urte "lekukoa arduraz hartu zuten gazteak" izan zituen gogoan lehenik. Legegintzaldi



Arantza Bengoetxea Altsasuko zerrendakidea, Adolfo Araizekin batera.

despeditu berritan errentaren indarrean jartzea eta udal zerbitzuak mantentzea eta haietako

batzuen eskaintza zabaltzea aipatu zituen.

Bengoetxeak parte hartzea sustatu beharra nabarmendu zuen, dela batzorde ireki, lan talde, foro eta dena delakoen bidez. Legegintzaldi honetan Festen Batzordean izandako parte hartze esperientzia udaleko beste batzordeetara zabaltzeko prest azaldu zen. EH Bilduren programan agertzen diren "puntu irekien" gainean eztabaidatzera animatu zituen altsasuarrak. Bengoetxeak, azkenik, esan zuen Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramateko Altsasuk lokomotora izan behar zuela.

## &gt;&gt; Arakil

# Independenteek Arakilen alde lanean jarraitzeko babesak eskatzen dute

Hasitako bidetik, Arakilgo Independenteek (AI) "kontzejuak eta harana suspertzeko gogor lan egiteko" asmoa azaldu dute, zehaztuz, egiteko hori "denon artean" egin behar dela. Arakildarrekin egindako bilera irekietan jasotakoarekin zehaztu ditu AIk bere lan ildoak.

Arakil bizi baten alde ekonomia arloan bost proposamen zehatz aurkeztu ditu AIk. Ibarrean bizi eta lan egin ahal izateko 11 lehentasun zehaztu ditu bere programan hautagaitza independenteak. Haien artean herri-lanak, mugikortasunaren aldeko



Arakilgo Independenteen zerrendako kideak.

neurriak, ingurumen arlokoak kontzejuen arteko harremana edota hirigintzan. Udalaren eta estutzearekin batera, indepen-

denteek "Arakil sozial eta integratzaile baten alde lan egiten jarraituko dugu, kirol eta kultur jarduerak sustatuz eta euskararen aldeko apustua eginez".

Hori guztia aurrera eramateko kontzeju guztietan urtean behin batzar irekiak egingen dituztela aurreratu dute. Komunikazioa hobetzeko udal boletina, Internet eta sare sozialak erabiliko dituztela azaldu dute. Azkenik, Arakildarrek antolatu dituzten ekitaldietara (ikus hauteskunde agenda) joateko, informatzeko eta parte hartzeko gonbitea luzatu diete.

## &gt;&gt; Bakaiku

# EH Bilduk Udal parte-hartzaile eta gardena iragarri du



Bakaikuko EH Bilduko hautagaitza.

Egoera ikusita ekonomia baliabi-deak ongi aprobetxatzeko eta herritarrendako benetan baliagarriak diren proiektuak jasoko dituen bide orria gauzatu nahi du EH Bilduk Bakaikun, 10 edo 15 urterako baliagarria izanen dena. Despeditutako legegintzaldian herritarrek inkestent bidez egindako proposamenak osatzeko azpiegitura, euskara, ingu-

rumen, kirola, kultura eta parte hartze batzordeak sortuko ditu Bakaikuko EH Bilduk.

Lan taldeetan ahalik eta herritar gehienak parte hartzeko saikera egingen duela aurreratu du. Lan taldeek landutako proposamenen gaineko erabakiak hartzeko erabateko ahalmena izanen dute. Landuko diren proposamenen

arteak bakaikuarrendako lehentasunezkoak direnak galdeketa bidez aukeratu dituzte. Udalak bere egingo ditu eta bakaikuarren borondatea bete.

## Auzolanaz

Programan auzolanaren inguruan hausnartu eta erabakiak hartzea proposatu du koalizioak bere programan. Ondoko herrietako esperientziak ezagutzeko eta eztabaida zabaltzeko Bakaikuko EH Bilduk auzolanari buruzko mahai-inguru antolatu du gaurko, 19:00etan auzoan. Jose Ramon Garin, Lakuntzako alkateak, Bitoriano Gabirondo, Iturmendiko alkateak, Juan Mari Barriola, Leitzakomendizinegotziak eta Juantxo Gaia, Lakuntzako zinegotziak parte hartuko dute.

## &gt;&gt; Altsasu

# PPk ekonomia aktibatuko luke

PPren Altsasuko alkate-gaia Carlos Lopez Garcia da, Guadalix de la Sierrakoa (Madril) eta soin hezkuntzako irakaslea. Sorterriko gazteria popularretako burua, 14 urteetatik dago alderdi popularean. Bere herriko udala laguntzen aritu da eta kudeaketan hori da duen eskarmentua. Hego Euskal Herrian alderdiak zerrendetarako jendea behar zuela eta bere burua aurkeztu zuen.

Ilusioz hartu du erronka. Lopezek onartzen du "paraxutista" izan litekeela, "baina benetan bokazio publikoa duen pertsona batek ez du zergatik bertakoa izan behar besteak lagundu nahi izateko. Herritarren alde lan egitera dator". Azken hiru astetan astero lautan etorri izan da Altsasura, herria eta herritarrek ezagutzeko. Aurretik Altsasutik zuen erreferentzia bakarra sanferminetara



joateko herritik pasatzen zela.

Lehentasunen artean ekonomia aktibatzea du, "bai enpresak erakartzeko neurriak sustatuz baita komertziorako jendea erakartzeko ere. Eta Udal zerbitzuak (Iortia, Zelandi, musika eskola, kirola) mantentzea. Ez da bertakoa izan behar premia nagusiak horiek direla ikusteko". Berrikuntza eta garapena, kirol eta ingurumen proposamenak ere baditu Lopezek. Nafarroako Gobernuak Sakanaz gogoratu beharra duela ere aipatu du.

## HAUTESKUNDE AGENDA \*

**David Anaut eta David Carmelo Oroz Alonso.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Urdiango udaletxean. **EH Bildu.**

**Sabino Cuadra eta Aitor Larraza Carrera.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo plazan. **EH Bildu.**

**Hautagaitzaren eta talde-programaren aurkezpena.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:30ean Hiriberriko balio anitzeko gelan. **Arakil Independentek.**

**Bikendi Barea eta Francisco Javier Bengoetxea Morante.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 19:30ean Ziordiko plazan. **EH Bildu.**

**Asun Fernandez de Garaialde eta Gurutze Rodriguez Armendariz.** Maiatzaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko San Migel plazan. **EH Bildu.**

**David Anaut eta Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 13:30ean Lakuntzako plazan. **EH Bildu.**

**Asun Fernandez de Garaialde eta Maria Del Mar Esparza Luri.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 20:00etan Hiriberriko plazan. **EH Bildu.**

**Arantza Izurdiaga eta Egoitz Urritza Lazkoz.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 19:00etan Bakaikuko plazan. **EH Bildu.**

**Hautagaitzaren eta talde-programaren aurkezpena eta bazkaria.** Maiatzaren 17an, igandean, 12:30ean Egjarretako Itxasperi ermitan. **Arakil Independentek.**

**David Anaut eta Maria Carmen Maraion Chasco.** Maiatzaren 17an, igandean, 13:00etan Arbizuko plazan. **EH Bildu.**

**Sabino Cuadra eta Eneka Maiz Ulaia.** Maiatzaren 17an, igandean, 13:00etan Etxarri Aranzako plazan. **EH Bildu.**

**Bikendi Barea eta Ainara Aiestaran Ijurko.** Maiatzaren 17an, igandean, 18:00etan Uharte Arakilgo plazan. **EH Bildu.**

**Hautagaitzaren eta talde-programaren aurkezpena.** Maiatzaren 19an, asteartean, 19:30ean Etxarrengo kontzeju etxean. **Arakil Independentek.**

\* Alderdiak eta koalizioek jakinarazitako agenda.





GRUPO TANATORIO

# IRACHE

TANATORIO TALDEA

## 948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

**Fernando Bengoetxea Morales**

Urdinez margotu dizut begirada zuriz isiltasuna berdez gorriz horiz... zure edertasuna.

Ene ostadarra zu.



**Zure familia**

**Iosu Anduaga Goñi**

V. urteurrena

Gu biyotzetan zaude.

**Zu fameliyek**

Mayatzien 20an.



aski da!  
Eten euskaraz orain!

## Oroigarriak



**Guaixe KOMUNIKAZIOA**

948 564 275



GRUPO  
**Funeraria VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980**

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

**1 HIGIEZINAK**

**2 TEKNOLOGIA**

**3 LANA/NEGOZIOAK**

**4 DENETARIK**

**5 IBILGAILUAK**

**6 HARREMANAK**

**7 AISIA/KIROLA**

**8 FAMILIA/ETXEA**

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.net](mailto:zorian@guaixe.net)

**higiezinak**

**ETXEBIZITZAK**

**SALGAI**

**Pisua salgai Etxarri Aranatzan.** 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02.

**ERRENTAN EMAN**

**Pisua alokagai Lakuntzan.** Gela bakarreko apartamentua, erdigunean. Altxariak eta bitzetako beharrezkoak diren elementu guztiak jantzita. 300 € hilabeteko errenta. Interesatuak 678 83 03 71 telefonora deitu.

**LOKALAK**

**ERRENTAN EMAN**

**Urdiaino igerilekuak errentan hartzeko.** Interesatuak euren proposamenak maiatzaren 28a baino lehen bidali beharko dituzte ondoko e-mailera: [aitezberelkartea@gmail.com](mailto:aitezberelkartea@gmail.com). Interesatu guztiak Aitziber elkartearen maiatzaren 28an 20:00etan egindako bilerara agertu beharko dira.

**Lehiaketak**

**Erromantatuaren koloreak.** Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa [www.restauranteromantado.com](http://www.restauranteromantado.com)

**Irurtzuno festen kartela.** Maiatzaren 29ra arte aurkeztu daitezke lanak. Haur maila (14 urte arte) eta helduen maila daude. Informazio guztia: [www.irurtzun.es](http://www.irurtzun.es)

**Pedro de Atarrabia.** Kontakizun laburren lehiaketa, euskaraz eta gaztelaz. Informazioa Atarrabiko udalean: [www.villava.es](http://www.villava.es)

**Oharrak**

**Odol-emaileak.** Maiatzaren 13an, Etxarri

Aranatzen, arratsalde, eta 21ean Olaztin, arratsalde.

**Bertso-udalekuak.** Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekuekin. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xaloe telebistak Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-irunherria](http://www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-irunherria) edo Iruñeko Kariakiri Euskal denda (Xabier Kariak 4) eta Katakak liburudenda (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaritza. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Aholasa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartaliendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daitezke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,

**Iragarkilaburrak**

**Ikastaro publikoak (udal, sindikatu Inem, Mank) eta lan eskaerak/eskaintzak**

## DOAN

Sail berria TRUKEAK

Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural Kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezate.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure belexeguaix txartela.** 50€ko

kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramant: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irrata zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita

**JAIOTZAK**

- **Aimar Huarte Fernandino,** apirilaren 26an Uharte Arakilen.
- **Eki Sanchez Larunbe,** maiatzaren 2an Uharte Arakilen.
- **Alex Claver Montero,** maiatzaren 3an Iruñean.
- **Egoi Queirós Crespo,** maiatzaren 8an Altsasun.
- **Ferran Sanchez Perianez,** maiatzaren 10ean Valentzian.

**HERIOTZAK**

- **Elena Zabala Ruiperez,** maiatzaren 7an Olaztin.
- **Jose Gasanz Lucas,** maiatzaren 7an Urdiainen.
- **Valentina Etxarri Aragon,** maiatzaren 8an Uharte Arakilen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatziko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazio@sakanamank.com](mailto:immigrazio@sakanamank.com) posta elektronikoa.

IRRISTAKETA

**SAKANDARRAK ESPAINIAKO ZIRKUITU TXAPELKETARA:** Nafarroako Iristaketa Zirkuituko Txapelketan bikain aritu eta ge-

ro, Espainiako Txapelketarako txartela lortu dute Sakana Iristaketa Taldeko Chamorrok, Correirak eta Lapuentek.

**Mendi txirrindularitza-BTT**


Mikel Irigoien podiumean. J.C. IRIGOYEN

## Mikel Irigoien hirugarren juniorra Euskadiko Txapelketan

Izkuen jokaturako XXV. Galtzagorri Trofeoa aldi berean Euskadiko Txapelketa zen eta hirugarren juniorra izan zen uhartearra

Igandean XXV. Galtzagorri Trofeoa hartu zuen Izkuek, aldi berean Euskadiko BTT Txapelketa zena. Zirkuituari 6 itzuli eman behar izan zizkion txirrindulariek, guztira 30 km osatuz. Specialized-Ermua taldeko Aitor Hernandez (1:39:07) eta bizikleta.com taldeko Olatz Odriozola (1:23:42) izan ziren irabazleak. Biker sakandarrek lan ederra egin zuten. Tartean, Conor Saltokiko Mikel Irigoien uhartearra 35.a iritsi zen helmugara (1:59:29) eta podiumera igo zen, 23 urtez azpiko hirugarren onena izan baitzen. Pedalier taldeko Mikel Otxoa izurdiagarra 42.a iritsi zen helmugara (1:41:23), 23 urtez azpiko saikapenean bosgarrena.

**Pilota**


## Beste txapela bat Joanes Bakaikoarendako

Espainiako 22 urtez azpiko Txapelketako buruz buruko txapeladuna da etxarriarra

Iruñeko Labritek Espainiako 22 urtez azpiko Txapelketako buruz buruko finala hartu zuen igandean, Labriten. Erreka klubean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak ordezkatu zuen Nafarroa, Errioxako Rodrigo Marinen kontra aritzeko. Lehen jokoan erraz gailendu zen Bakaikoa, 2-10, sakez 6 tanto egin eta gero. Bigarren jokoan emozio gehiago egon zen. 3-0 gailuz hasi zen Bakaikoa, baina partidari buelta eman zion eta 6-10 irabazi zuen.

**Txirrindularitza-BTT**

## Barranka Txirrindulari Taldearen aurkezpena

Burunda klubetik sortutako taldeak mendi txirrindulariak eta zikloturistak biltzen ditu eta 20. Altsasu BTT Zeharkaldia eta IV. Sakana Burunda antolatuko ditu

Ostiralean aurkeztu zuen bere burua Barranka Txirrindularitza Taldeak. Burunda Txirrindularitza Taldeak sortu da. Burundako zikloturistek eta BTT edo mendi txirrindulariek sortu dute Barranka Txirrindulari Taldea, kudeaketa hobetzeko asmoz. Taldeak 46 bazkide eta 14 saltoki laguntzaile ditu eta 3 sekzio izanen ditu: BTT, zikloturista eta talde mistoa. Baliabideen aldetik ibilbideak egiteko 18 pertsona eramateko gai diren bi furgoneta ditu. Taldearen logotipoa eta web orria aurkeztu zituzten Iortian.

**BTT taldea**

Barrankako BTT taldeak igandero ibilbideak antolatzen ditu, uztaile eta abuztuan izan ezik. Zailtasun ertain-altukoak dira, irekiak, bazkide ez direnendako ere. Egutegia web gunean dago ikusgai. Abuztuaren lehenengo astean ibilbide luzeak egiten dituzte.

**BTT talde mistoa**

Emakumeekin batera BTT ibilbide laburragoak edo errazagoak egiteko sortu zuten taldea, zailtasun ertain-txikia duten txangoak egiteko. Jose Antonio Imaz da arduraduna. 2009an lehenengo aldiz Plazaolako bide berdea egin zuten

**Pilota**

## Buruz burukoan sakandarrik gabe

Ezkurdiari 22-20 irabazi zion Bengoetxea VI.ak, polemika tarteko, eta Altuna III.ak 4 tantotan utzi zuen Zubieta

Buruz buruko final zortzirenetan pilotari sakandarrek ez dute aurrera egin. Joseba Ezkurdia eta Oinatz Bengoetxearen kontrako partida lehiatua izan zen, bikaina. Bi pilotariak parez-pare aritu ziren. Arbi-zuarraren boleak eta sotamanoak ikusgarriak izan ziren eta Bengoetxeak bere errepertorio guztia erabili behar izan zuen Ezkurdiari eusteko. Ia sorpresa ematekotan egon zen Ezkurdia, 18-20 aurreratu egon baitzen. Baina azken txanpan leitzarrak 22-20 gailentzea lortu zuen, hori bai, izugarri kostata eta polemika tarteko.

**Poolmika**

Ezkurdiak salatu zuen leitzarrak bere bost atsedendialdiak agortu eta gero bi minutu pasa erretiratu zela aldageletara, eta inork ez zuela ezeresan. Epaileei autoritate eska-



Barranka taldeko kideetako batzuk.

### Ekainaren 14an XX. Altsasuko BTT Zeharkaldia

Taldeak 20. Altsasuko BTT Zeharkaldia antolatuko du ekainaren 14an. Egun horretan odol emailen eguna denez, horren inguruan sensibilizazio kanpainaren bat burutuko dute. Aurten, nobedade moduan, bi ibilbide egiteko auke-

eta orduz geroztik urtean lauzpabost martxa misto egiten dituzte, gehienera 160 km-koak, maila baxu eta ertainekoak.

**Zikloturistak**

Pablo Jimenez da taldearen arduraduna. Irteerak egiten dituzte eta horren berri web gunean ematen

**barrankatt.com**

Barranka Txirrindularitza Taldearen web gunea. BTT eta zikloturista taldeen irteeren, egutegiaren eta antolatutako proben informazio zabala eta eguneratua.

ra egongo da. Luzea (45 km, 804 metroko desnibela) eta laburra (28 km, 482 m desnibela). **Izena emateko, soilik aurretik XX. Altsasuko BTT Zeharkaldian parte hartzeko aurretik eman behar**ko da izena, barrankatt.com web gunean. Lehenengo probaren egunean da inskripziorik egingo. 700 pertsonen eman ahalko dute izena gehienez.

dute. Aurten ekainaren 27an V Sakana Burunda zikloturistamartxa antolatuko dute. Helburua 300 txirrindulari elkartzeta da. Proba ez lehiakorra da eta ibilbide luzea edo laburra (Aralarko San Migel igo gabe) egiteko aukera izango da. Soilik Aralarko San Migelgo igoe- ra izango da kronometratua.



Ezkurdia irabaztekoan egon zen, baina Oinatzek egin zuen aurrera.

sa izatea leporatu zien. Oinatzek barkamena eskatu zuen. "Sentitzen dut kaltetu badut, ulertzen dut bera haserre egotea, baina aldageletara sartu naiz gaizki nengoelako" adierazi zuen. "Epaileek nahi zuena egiten utzi diote. Tuntun aurpegiarekin noa" esan zuen, aldiz, arbi-zuarrak.

**Zubietak agur**

Jokin Altunak Aitor Zubieta goitik behera hartu zuen menpean

astelehenean Tolosan (22-4). 10 tanto egin zizkion sakez Zubieta-ri eta airean eta errematean agindu zuen. Hasieratik galduta egon zen etxarriarra eta kalbario latza bizi izan zuen. Etxarriarrak partida bukaeran azaldu zuen buruz buru jokatzeko duen azken partida izango dela astelehenekoa. "Gustuko dudana disziplina da, baina argi ikusi dut prestatuta dudana gidoitik ateratzen banaute, gaizki nabilela" aitortu zuen.

**Pilota**

## Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketa

Olaztiko San Migel elkarteak antolatutako XLIV. Pilota Txapelketaren 2. jardunaldia dago jokoan.

**Asteburuko partidak:**
**Ostiralean, 20:00etan**

**2. maila:** Ansotegi-Joa / Barban-Zubieta

**22 urtez azpikoak:**

Santxez-Mujika / Gartzia-Kintana  
Iturbe-Urrujola / Arrasate-Bikuña  
Larunbatean, 17:00etan

**3. maila:**

Alustiza-Gonzalez / Zubiria-Sergio

Iñaki-Ibon / Mendoza-Mendoza

**1. maila:** Etxeberria-Etxeberria / Iurgi-Javier

Mikel-Ioritz / Flores-Martinez



## 23. Irurtzungo Pilota Txapelketa final laurdenetan

Asteartean eta asteazkenean jokatu dira final laurdenak

23. Irurtzungo Pilota txapelketa final laurdenetara iritsi da. Asteartean eta asteazkenean jokatu dira, Irurtzungo pilotalekuan, Ongay, Bakaikoa, Ezkurdia, Peñas, eta Bergera tartean direla.

**Final laurdenak**

**Asteartean, 19:00etan, Irurtzungo pilotalekuan**

Ongay-Landiribar / Bakaikoa-Lasa

Ezkurdia-Tabar / Rekalde-Sanchez

**Asteazkenean, 20:00etan, Irurtzunen**

Azpiri-Peñas / Loidi-Lizeaga

Lansalot-Bergera / Labaka-Eros-tarbe



## Herri Artekoko Arbizuk eta Lekunberrik berdindu

Herrien Artekoko Pilota Txapelketan, 2. mailako lehen jardunaldian Arbizu eta Lekunberri lehiatu ziren. Bina berdindu zuten.

Emaitzak:

**Kimuak:** Gorrotxategi-Imaz (Arbizu) 18 / Iriarte-Ostiz (Lekunberri) 12

**Haurrak:** Olaetxea-Petriati (Arbizu) 18 / Astiz-Auzmendi (Lekunberri) 5

**Gazteak:** Nazabal-Goikoetxea (Arbizu) 17 / Aldaregia-Gurrea (Lekunberri) 22

**Seniorrak:** Arruti-Agirre (Arbizu) 12 / Aldaregia-Lansalot (Lekunberri) 22

## Mendi lasterketak



## XII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa ate joka

Ekainaren 14an jokatu da eta ekainaren 12ra arte eman daiteke izena

Zabalarte elkarrekin XII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatu du ekainaren 14rako, Lakuntzatik 9:30ean abiatuko da lasterketa. 24,7 km eta 1.154 metroko desnibel positiboko proba ederra da Lakuntza-koa, Aralar mendiko paraje bikainetan -Guardetxe, Mugerdi, Belokiko lepoa, Unako putzua, Irumugarrieta, Pagomari- gauzatzen dena. Izena ematea zabalik dago ekainaren 12ra arte, [www.lakuntza-aralar.com](http://www.lakuntza-aralar.com) web gunearen bitartez.

## Botxa

## Iratxo Botxa txapelketarako prest?

Maiatzaren 17ra arte eman daiteke izena

Iratxo elkarrekin Iratxoko Botxa Txapelketa 2015 antolatu du. Botxa petanka antzeko joko tradizionala da. Txapelketa maiatzaren 22an hasiko da. Hiru kidez osatutako taldeek parte hartuko dute, eta hirukote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

## Triatloia

## Asurabarrena Debako Triatloian

Altsasuarra 115.a sailkatu zen

Larunbatean VII. Deba Xtreme Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 25 km txirrindulan eta 5,2 km korrikan) eta Ander Okamika (1:11:13) eta Nuria Rodriguez (1:20:12) izan ziren txapelak. Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrena 115.a iritsi zen helmugara (1:23:45).

## Mendia

# Sakanako Ibilaldia: 885 mendizale

Eguraldi bikainarekin, 610ek ibilaldi handia egin zuten eta gainontzekoek txikia

Eguraldi hobea ziurtatzeko Sakanako Ibilaldia bi aste atzeratzeko ahaleginak fruitua izan du, larunbatean eguraldi dotorea zegoela burutu baitzen Iratxo elkarrekin antolatutako 26. Sakanako Ibilaldia. Aurreikuspenak gaindituz ziren -antolakuntzak gehienez 800 mendizale espero zituen- eta guztira 885 mendizalek parte hartu zuten ibilbidean. Goizeko 6:00etan abiatu ziren Ibilaldi Luzea hautatu zutenak, gehienak, 610. 54 km eta 3.388 metroko desnibela zuten aurretik, Txurregi, Beriaingo San Donato, Aralar San Migel eta Trinitatea barne. Aldiz, 7:30ean abiatu ziren ibilbide txikia hautatu zutenak (27,6 km, 1.344 metroko desnibela). Gaztelu, Ekai, Itxasperri, Goldaratz eta Latasa gainditu zituzten hauek. Ibilbide luzea Euskal Herriko eta Nafarroako Ibilbide Luzeen Zirkuituan jaso zegoen eta motza Nafarroako zirkuituan.

Sakanako ikuspegi bikainez gozatu zuten mendizaleek. Hornidura eta kontrol guneak izan zituz-



Uharte Arakilen indarrak hartu eta gero, Aralarra bidean. LARRAITZ AMADOZ

ten eskura, behar bezala hidratatzeko eta elikatzeke. Ibilaldi luzea egiteko batez beste 10 ordu behar izan zituzten mendizaleek, baina egon zen ibilaldia korrika egin zuen, eta lehenak ordu bietarako iritsi ziren Irurtzuna.

Irurtzunen bi ibilbideak osatu zituzten mendizaleek diploma eta oparia jaso zuten, Lorpen etxeko galtzetinak. Antolakuntza lane-

tan 50 pertsona baino gehiago aritu ziren eta mendizaleek, atzera ere, Iratxokoen antolakuntzaren dako hitz ederrak izan zituzten. f Soilik gertakari negatibo bat izan zen. Ata eta Madotz artean ondoezik sentitu zen gizon bat eta Nafarroako Ospitalera eraman behar izan zuten helikopteroz. Iktusa izan zuen eta adierazi duteenez, onera egin du.

## Txirrindularitza

# Josu Etxeberria garaile Arronizen

Quesos Albeniz probako talde onena izan zen

Larunbatean Arronizek kadeteen mailako IX. Borja Osés Memorial hartu zuen. Burundako Quesos Albeniz taldeko Josu Etxeberria iturmendiarrak irabazi zuen proba. Quesos Albeniz probako talde onena izan zen. Oihan Vinagre 4.a sailkatu zen, Ailetz Lasa 8.a, Odei Zia 19.a eta Josu Jaka 41.a.

## Aramendia 8.a Beran

Larunbatean juniorren lasterketa jokatu zen Beran (81 km). Esprintean erabaki zen proba eta Zarautarra taldeko Jokin Aranburu gailendu zen (1:54:01). Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia eta Asier Etxeberria 8. eta 12. sailkatu ziren, denbora berean. Atzerago sailkatu ziren Burunda eta Aralar klubeko gainontzeko sakandarrak.



Josu Etxeberria eta taldekideak Arronizko garaipena ospatzen. BURUNDA

## Eskolak

Kategoria txikikoek eskolen mailako lasterketa jokatu zuten larunbatean Mutiloan. Emaizta aipagarriaren artean, kimuen lehen urteko mailan Aimar Tadeo gailendu zen eta Mikel Uncilla hirugarrena izan zen. Kimuen 2. urteko

mailan Jon Txamorro hirugarrena izan zen eta Jon Erdozia laugarrena. Haurren lehen urteko mailan Aitor Alberdi laugarrena sailkatu zen eta Iker Mintegi bosgarrena eta haurren 2. urteko mailan Unai Villalobos bosgarrena izan zen.

## Sokatira



## Nafarroako Lauko Sokatira txapelketa Etxarri Aranatzeko erabakiko da bihar

Larunbatean, 17:00etan, txapelketako 4. eta azken jardunaldia jokatu da frontoian

Nafarroako 4x4 Sokatira txapelketako 4. eta azken jardunaldia hartuko du Etxarri Aranazko pilotalekuak bihar, larunbatean, 17:00etan. Zehazki, gizonen 300 kiloko bigarren jardunaldia (Beti-Gazte, Berriozar, Amaiur A, Amaiur B eta Kaskallueta taldeak), emakumezkoen 235 kiloko bigarren jardunaldia (Berriozar, Txantrea eta Kaskallueta taldeak) eta kadeteen 280 kiloko laugarren jardunaldia (Berriozar A, Ultzama A, Andra Mari, Araxes, Iñigo Aritza, Berriozar B eta Ultzama B taldeak) jokatu dira. Ondoren, kategoria bakoitzeko lehen bi sailkatuen arteko finalak jokatu dira.

Larunbatean txapelketako 3. jardunaldia jokatu zen Lekunberrin. Kadeteen 280 kiloko txapelketan Berriozar A izan zen onena, Ultzama A eta Andra Mari taldeen aurretik. Iñigo Aritza 5.a sailkatu zen. Ea Etxarri Aranatzeko zein nolako lana egiten duten sakandarrak.



**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**TxikiTxo**  
*haurren arropa eta lentzeria*  
  
948 46 73 08  
Ferialde 2 - ALTSASU

**asi**  
arreta eta orientazio  
psikologikoko zentrua  
Arantxa Sueskun Igoa  
**PSIKOLOGOA**  
**PSIKOTERAPEUTA**  
Elkargokide-zk.: N-0806  
Urbasa kalea 15, behea  
31800 - Altsasu (Nafarroa)  
948 467 354 - 669 367 422

**KOADRO HONEN ZOZKETA >> LORTU BOLETOAK**  
**50€tik**  
gorako erosketak  
egiteagatik  
boleto bat  
Boletoak salgai:  
**1,5€ren truke**  
Zozketa eguna:  
maiatzak 30.  
  
**mariaeugenia**  
Arrainak  
[www.pescaderiamariaeugenia.com](http://www.pescaderiamariaeugenia.com)  
Arratsalde zabalik  
Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

## Atletismoa

## Andra Mari Ikastolaren II. Binakako Lasterketan izena ematea zabalik

Maiatzaren 23an jokatu da eta izena ematea zabalik dago

Andra Mari ikastolak II. Binakako Lasterketa-Naparpel Sarria antolatuko du maiatzaren 23an, 16:00etatikurrera. Lasterketa herrikoia eta irekia da, eta binaka parte hartzen da. Modalitateak: haur hezkuntzako txikiena, LH 1 eta 2, LH 3 eta 4, LH 5 eta 6 eta 12 urtetik gorako bikoteak. Izena ematea zabalik dago, ikastolan. Maiatzaren 20a baino lehen 2 euro ordaindu behar dira eta maiatzaren 20tik aurrera 4 euro.



Izaskun Beunza.

## Sakandar asko Iruñeko Hiria maratoi erdian

Adur Senar lakuntzarra 30.a izan zen maratoi erdian eta Izaskun Beunza laugarren emakume onena 10 km-ko proban

Sakandarrak Iruñeko Hiria maratoi erdian (21 km):

1.	Antonio Etxeberria	1:08:25
30.	Adur Senar	1:19:06
47.	Aritz Pellejero	1:20:46
81.	Kaxi Estarriaga	1:25:23
94.	Luis Areta	1:27:02
190.	David Mutiloa	1:32:54
241.	Ruben Mendieta	1:34:57
348.	Adolfo Lopez	1:38:49
419.	Jose Reyes Palacios	1:41:36
438.	Maitte Zabaleta	1:42:22
439.	Joxeja Maiza	1:42:23

Sakandarrak 10 km-ko proban:

1.	Bader Eddghoughi	35:21
33.	Izaskun Beunza	43:59
117.	Emilio Carabias	52:20
118.	Fernando Montero	52:20
135.	Juan Antonio Palacios	53:15
278.	Maria Lopez	1:02:31
311.	Veronica Armario	1:07:19

Igandean 34. Iruñeko Hiria maratoi erdia-Itziar Lazurtegi Memoriala jokatu zen. Bi lasterketa zeuden: maratoi erdia, 21 km-koa, eta 10 km-ko lasterketa. Guztira, 1.200 atleta inguru lehiatu ziren. Maratoi erdia Antonio Etxeberriak (1:08:25) eta Ana Ollok (1:17:42) irabazi zuten. Sakandarretan azkarrena Adur Senar izan zen. Lakuntzarra 30. postuan iritsi zen helmugara (1:19:06). Maitte Zabaleta izan zen aritu zen emakume sakandar bakarra. 438.a iritsi zen helmugara (1:42:22), 17. emakumezkorik onena. 10 km-ko proban Bader Eddghoughi (35:21) eta Estela Navascues (37:39) gailendu ziren. Izaskun Beunza lasterketako laugarren emakume azkarrena izan zen (43:59).

## Areto futbola

# Europako txapeldunordeak

Errusiako Podvodnik taldeak 6-3 irabazi zion Koxka tabernari baina historia egin dute sakandarrek

Koxka taberna taldea Europako klubaren arteko UEFS Cup txapelketako txapeldunordea dugu. Finalikusgarrian, Errusiako Podvodnik taldearen kontra 6-3 galdu zuen Koxkak, baina lortutakoarekin pozik daude altsasuarrak, txapeldunorde izatearekin historia egin dutelako.

Talde altsasuarrak 2014an lortu zuen aipatu txapelketan lehiatzeko txartela, Areto Futboleko Klubaren Arteko Espainiako txapelketa irabazi eta gero. Europa-koan lehen fasetik aurrera pasatzea "oso konplikatu" ikusten zuten sakandarrek, bereziki Ekialdeko taldeek zuten mailagatik, baina sorpresa eman eta lehen fasea eta final laurdenak gainditzea lortu zuen Koxkak. Ostiralean jokatu zuten finalerdia eta Koxkak 4-2 irabazi zion Errusiako Rusland taldeari, azken minutu zirrargarrietan.

### Finala

Larunbatean jokatu zuten Europako klubaren arteko UEFS Cup txapelketako finala Koxka tabernak eta Errusiako Podvodnik talde ahaltsuak, txapelketako talde faboritoak. Hala ere, finala oso lehiatua izan zen. Errusiarrek bi goleko abantaila lortu zuten berehala, baina 9. minutuan Koxkak lehen gola sartzea lortu zuen. Errusiarrek beste gol batekin erantzun zuten, eta nahiz eta altsasuarrak bigarren gola sartu, atzera ere Koxkakoen atean asmatzea lortu zuten eta atsedenaldira 4 eta 2ko



## Magnak oso zaila du play-offetan aurrera egitea

Play-offetako final laurdenetako joaneko partidari jokatu zuten Magnak eta El Pozo Murciak Anaitasunan. Partida hasi baino lehen omenaldia egin zitzaion Xotarekin bere 600. partida jokatzeko zuten Javi Eserverri kapitainari. Partida parepare hasi zuten bi taldeek eta banako berdinketarekin iritsi ziren atsedenaldira. Baina bigarren zatian bere kalitatea erakutsi zuen Magnaren aurrekontua ia hirukoizten duen El Pozo Murcia talde ahaltsuak eta 2-5 aurreratuta ia bideratua utzi du play-offetan aurrera egiteari. Gaur jokatu dute itzulerako partida, Murtzian. Magna irabaztera derrigortua dago, horrela berdinketa hausteko 3. partida jokatu bailleke, igandean.

## Koxka taberna



Atezainak: Jose Retegi eta Ivan Gorriz.

Jokalariak: David Mori, David Teran, David Garcia, Jonathan Higuero, Arkaitz Gasko, Jonathan Medina, Iñaki Morillas, Jorge Mayordomo, Patxi Beraza, Javi Azkoiti eta Otman Ogdli.

Entrenatzaileak: Migel Barrero eta Jose Ramon Ramirez.

Delegatuak: Kiko Tejero eta Mixel Agirre.

errentarekin joan ziren Podvodnik taldekoak. Bigarren zatian defentsan hobetu zuten Koxka tabernakoak. Hala ere, errusiarrek bosgarren gola sartu zuten. Baina Medinak sartutako golari esker 5 eta 3 gerturatu ziren. Partida bukatzeko lau minuturen faltan errusiarrek seigarren gola sartu zuten, altsasuarrak ahaleginak zapuztuz. Horrela despeditu zen finala, errusiarrek 6-3 irabazita.

### Positiboa

Koxka tabernako Migel Barrero entrenatzaileak adierazi zuenez, "finala txapelketan egin dugun partidari kaxkarrena izan da. Oso hotz hasi dugu norgegiagoko, partidari sartzea asko kostatu zaigu eta eurek hori probestu dute, 2

eta 0 aurreratuz. Gero guk sartzen genuen gol bakoitzeko eurek beste batekin erantzuten zuten. Partidaren kontrola eurek izan dute eta euren atezainak sekulako partida egin du, geldialdi bikainak egin ditu" azaldu zuen altsasuarrak. Hala ere, txapelketarekin kontentua daude altsasuarrak. "Balorazioa positiboa da, jakina. Gure lehendabiziko parte-hartzea izan da, finalera iristea lortu dugu eta Europako txapeldunordeak gara. Hori positiboa da, nahita nahi ez. Finala ez irabaztearen arantza hori geratzen zaizu, gainontzeko partidari bezain ongi aritu ez garela" gaineratu du. Baina pozik egoteko arrazoi asko dituzte, Europako txapeldunordea izatea ez baita makala. Zorionak!



## Futsalsakana Kopa: Racingek eta Bunkerrek jokatu dute finala

Gaur, ostiralean, 20:00etan, Uharteko Arakilgo pilotalekuan

Futsalsakana liga despeditu ondoren abiatu zen Futsalsakana kopa. 8 talde lehiatu ziren eta lau onenak sailkatu ziren finalerdietarako. Asteburuan jokatu ziren final erdiak. Lehenengoan Racing San Migelek finalerako txartela lortu zuen justu-justu Arbizuri 7-8 irabazi eta gero. 7-4 galtzen zioan Racing, baina uhartearrek partidari buelta ematea lortu zuten eta lehia oso estuan 7-8 irabaztea lortu zuten. Beste final erdian Hijos de Perlak ederki estutu zuen Bunker. Baina Bunkerrek ez zuen etsi eta azkenean partida bukaeran markagailua irauli zuten, 5-7 irabaziz.

Horrela, Racing San Migelek eta Bunkerrek jokatu dute Futsalsakana Kopako finala gaur,

ostiralean, 20:00etan, Uharteko Arakilgo pilotalekuan. Ligako finala ere bi talde hauek jokatu zuten eta Racingek lortu zuen gailentzea, penaltietan. Bunkerrek errebantxa hartzea nahi izango du eta Racingek denboraldiko bigarren kopa eskuratzea. Zalantzarik gabe, galdu ezinezko final estua.



Hijos de Perlak Bunker estutu zuen.

## Padela



Aurreko edizioetako bat. ARTXIBOA

## Olaztiko Erburua Padel txapelketarako izena ematea zabalik

Maiatzaren 22ra arte egin daiteke inskripzioa

Ekaina hasieran emango zaio hasiera Olaztiko Erburua Padel txapelketari eta uztailaren bukaeran, Olaztiko festekin batera, despedituko da. Izena ematea zabalik dago, maiatzaren 22ra arte Erburua kiroldegian edo 948 564 512 telefonoan.

## Futbola

### ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

32. JARDUNALDIA

#### ETXARRI ARANATZ 2 - BERRIOZAR 3

#### BETI KOZKOR 1 - ALTSASU 0

Xabaten eta Gentzaren goleki esker 2 eta 1 joan zen atsedenaldira Etxarri. Bigarren zatian liderrak dominatzen jarraitu zuen, baina Berriozarrek berdintzea eta garaipenaren gola sartzea lortu zuen. Altsasuk dominatu zuen Lekunberrin eta altsasuarrak izan zituzten aukera gehienak, baina kontraeraso bikain bati esker Beti Kozkor izan zen gola sartu eta garaipena lortu zuena.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	.....	74 p
10.	Altsasu	.....	42 p

Asteburuko jardunaldia

#### ARDOI - ETXARRI ARANATZ

(Larunbatean, 18:30etan, Zizurren)

#### ALTSASU - HUARTE

(Igandean, 17:00etan, Altsasun).

## Futbola

## Kimuen Futbol 8 Topaketen azken jardunaldia jokoan

Igandean, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Kimuen Futbol txapelketako 18. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk, denboraldiko azkena. 10 talde lehiatu dira txapelketa moduan jokatzeko den topaketa. Helburua txikiengana kirola eta futbola sustatzea da, eta horregatik ez da sailkapenik egiten.



### 18. jardunaldia

Igandean, Dantzalekuk

10:30ean: Urdiain - Arbizu

11:30ean: Mediolanum - Dantzaleku

11:30ean: Tipi Tapa - Sayas

12:30ean: Lagun Artea - Txartel

12:30ean: Sutegi - Kaixo

PINTXOAREN 6 EGUNAK

# ALTSASUKO PINTXO FERIA



ARKANGOA · GAUTXORI · KOXKA · LEZEA · URTZI · XUME

MAIATZAK 15-16-17 ETA 22-23-24

19:00 etatik aurrera

ARKANGOA



## HANKA ETA ZIZA ZOTOLA

Osagaiak: Txerri-hanka hezurgabea, perretxikoak eta barazki eta ziza saltsa berdea.

GAUTXORI



## LURRA ETA ITSASOA

Osagaiak: Olagarroa, txerria, boniatoa eta kuitxo espaguetia.

KOXKA



## RODOLFOTXO

Osagaiak: Bakailaoa, almendrak, otarrainxka eta sesamoa.

LEZEA



## HANKA HANBURGESA CHIPS-EKIN

Osagaiak: Txerri-hanka, gazta, onddoak eta banana.

URTZI



## UDABERRIA

Osagaiak: Lekak, bakailaoa eta mango ozpin-olioa.

XUME



## ESNA NAZAZU

Osagaiak: Txangurroa, txipiroia, perrexila, azenarioa eta porrua.

# kultura >>

**ITZIAR NAZABALEN ARTE ESKOLA:** Altsasuko Iortia kultur gunean 70 bat ikasleen lanak astelehenerik hila-ren 31ra arte izanen dira ikusgai. Nazabalek esan digunez, "gauza interesgarriak ikusteko aukera dago".

## Emakumeendako plaza

**Etxarri Aranazko Musika plazan egitarauko protagonistak emakumeak izanen dira. Gainera, Emarock proiektua ezagutzeko aukera izanen da**

**E**maplaza izena hartu du Etxarri Aranazko Udalak maiatzerako egindako eskaintzak. Udaleko Kultura Sailak eta Parekide Batzordeak bat egin dute hura prestatzerakoan. Kitz Mendiola zinegotziak azaldu duenez, "bi behar uztartu eta lotu ditugu. Alde batetik, Kultura Sailak urtero maiatzean antolatzen duen Musika plazan zikloa. Eta, bestetik, batzordean aspaldi Emarock proiektua erakusteko asmoa".

Azken proiektu horrek Euskal Herrian musikan ari diren emakumei protagonismoa eta espazio bat ematea du helburu. Emarocken asmo horrekin bat eginik, Musika plazan zikloko hiru ema-



naldietako protagonistak emakumeek osatutako taldeak izanen dira. Mendiolak zikloaren aurkezpenean esan zuenez, "jendartean, musikan pausuak eman badira ere, emakumeen presentzia eskasa da kontzertu eta musika ekitaldietan, baita Etxarri ere".

Emakume musikariei espazioa eta protagonismoa emateko

antolatu du Etxarri Aranazko Udalak Emaplaza. Baina ez soilik plazako kioskoan. Emarock proiektuko argazki erakusketa maiatzean herriko tabernetan ikusteko aukera izanen da. Ibilbide eta estilo ezberdinak jorratzen dituzten emakume musikariak ikusteko aukera emanen du. Besteak beste, Maider Ansa eta

### Egitaraua

**Emarock erakusketa.** Maiatzaren 16tik 31era arte, tabernetan.

**Emarock. Iragana, oraina eta geroa.** Maiatzaren 16an, larunbatean, 19:00etan kultur etxean. Dokumentala.

**Ansa ahizpak.** Maiatzaren 17an, igandean, 19:00etan, plazan. Hiru ahizpak kantuan, gitara eta pianoz lagunduta. Euskal kantutegiaren errepaso egingen dute.

**Las guindillas.** Maiatzaren 25ean, 19:00etan, plazan. Zazpikotea igoko da kioskorako. Aragoiko taldeak bizitasuna, indarra eta erritmoa ekarriko ditu.

**Uluka.** Maiatzaren 31n, 19:00etan, plazan. Arabar laukoteak herri kantak, bertsiu modernoak eta kantu propioak eskainiko ditu.

Amets Larraza etxarriarrak eta Hesianeko Zuriñe Hidalgo ageri dira. Bestalde, larunbatean, 19:00etan, Saioa Cabañasek euskal emakume musikarien inguruan egindako dokumentala emanen da kultur etxean. Ondoren zuzendariarekin solasaldia izanen da.



## Nonerabili

### JM AGIRRE HARATEGIA

#### LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

### DANTZALEKU TABERNA

#### ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

### KAXETA

#### ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### KATE INFORMATIKA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

### KALUXA TABERNA

#### URDIAIN

Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

### CITROËN SAN MIGUEL

#### ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldatketetan % 20 deskontua.

### IRUBIDE JATETXEA

#### ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

### SAKANA OPTIKA

#### ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

### XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA

#### ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua, bonu, gimnasioetajardueretan izanez.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



## El gran teatro del mundo



**Maiatzaren 16an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

**P**untido teatrotan Pedro Calderón de la Barcaren *El gran Teatro del Mundo* antzezlanaren moldaketa batek emanen dio segida Teatreves, Altsasuko Amateur Antzerki Zikloari. Obra horretan egileak bizitza antzerki baten

gisa islatzen du eta han pertsona bakoitzak paper bat jokatzen du. Obra originalari leialtasunez jarraituz, egokitzapenak gaurkotasunera itzuli du.

Sortzez auto sakramentalazena telebista-plato batera eramana izan da oraingo moldaketan. Politikoak, enpresariak, gazte solidarioak, aktoreak, langileak, behartsuak, haurrak... agertuko dira eszenatokian.

### Sariak



Zikloko emanaldi bakoitzaren ondoren Tari-ma Beltzak Altsasuko Dendarien Elkarteak emandako 30 euroko erosketa txartela eta Xurru, Alde Zaharreko tabernen elkarteak emandako ardo botilak zozketatzen ditu. Aurreneko saria Ana Jesus Ruiz Alegriarendako izan zen.

Guztiek publikoari euren ilusioak azalduko dizkiote, haien bizitza mundua den telebista-plato handian antzeztuz. Egiten duten lanaren arabera, audientziak parte-hartzailerako bakoitzaren patua erabaki behar du. +www.guaixe.eus

**Andra Mari Ikastolaren II. BINAKAKO LASTERKETA**  
"Naparpetet saria"

**Maiatzak 23**  
**16:00etan**  
**Etxarri Aranatz**

Informazio gehiago: [www.andramariikastola.eus](http://www.andramariikastola.eus)

# Zoritxar batek bultzatu nau proiektu polit bat aurrera eramatera

**Kalean da Jose Luis Asensioren Ixa, asap! liburua. Iruñeko Udalaren literatur lehiaketa irabazi eta argitaratu gabe gelditu zen ipuina. Idazle etxarriarak auto-ediziara jo du lau narraziorekin liburua osatuz**

**L**iburua kalean bizpahiru egun dituela, “oso pozik” dagoela aitortu digu Jose Luis Asensiok. Esan digunez, “jende pilaren laguntza teknikoarekin eta ekonomikoarekin argitaratu dut liburua; tartean, mikro mezenazgo proiektu bat izan da”. Asensiok argitu digu, argitaletxe baten laguntzarik gabe aritzean “lan handia” egin behar izan duela: “hor aritu naiz lege kontu guztiak aztertzen liburua kalean izateko”.

Liburuaren izenburuaz galduta etxarriarak azaldu digunez,

lehen zatia Isabel izenaren laburdura dela. Bestea ere laburdura bat da, ingelesezko *as soon as possible* esapidearena. “Gauzak ahalik eta azkarren egin behar direnean asap esaten da. Liburuak gauza tekniko eta informatikoekin zerikusia duenez, liburuaren testuinguruaren esanahi garrantzitsua du”.

## Irudiaren aldarrikapena

Idazle eta argitaratzaileak esan digunez, “irudiz hornitutako ipuinak eta kontakizunak asko gustatzen zaizkit. Oso komiki zalea naiz. Irudiak izateagatik ez duzeratan haurrendako izan beharrik. Horregatik, haur estetika duen liburu bat helduendako izateak badu aldarrikapenetik. Helduendako gauza batek irudiak izan ditzakeela esateko modua da”.

Irurtzango Iñigo Izalek egin ditu ilustrazioak eta haren irudiekin Marina Lopezek azala prestatu du.

## Aurkezpenak eta

Aurreko ostegunean Iruñeko Karrikiri elkartearen aurkeztu zuen lana. Maiatzaren 20an Iruñeko Yamaguchi liburutegian aurkeztuko du eta Iruñeko liburu azokan ere aurkezpena egingen du. Liburuaren eskutan hartu dutenek “oso polita, oso profesionala” gelditu dela esan diote. Mamiaz aurrerago espero dituzte iritzia-kAsensiok. Editore



lana gustatu zaiola aitortu digu. “Baina lan asko eskatzen du detale guztiak

lotzeko. Mundu interesgarria iruditzen zait. Eskarmentu pixka bat banuen elkarte batean, Funzeen aldizkarian, editore lantxoak egiten ditudalako eta Guaixen zutabe bat idazten dudalako”.

Liburuaren Iruñeko hainbat liburu-dendetan salgai dago. Elkar banatzailearen bidez gainontzeko liburu-dendetara iritsiko da. Hala ere, Etxarri Aranatzera eramanez duela azaldu digu Asensiok.

## Bultzada

Asensiok Iruñeko Udalaren egileberriendako narrazio laburren saria irabazi zuen 2013an. Udalak ipuina argitaratuko ez zuela ikusita, baimena eskatu eta argitaratzeko ametsa gauzatu egin du. Hasierako bultzada emateko 600 euro eskatu zituen crowdfunding kanpaina abiarazi zuen Asensiok eta “oso arrakastatsua” izan zen: 1.202 eskuratu zituen, zergak eta bestelakoak kenduta mila eurotik gora.

Haietako bilaguntzaileekin osteguneko aurkezpenean egoteko aukera izan zuen. Bat ezagutzen zuen, bestea ez. “Pozgarria izan zen jakitea atzean ezagutzen ez dudana jendea ere badagoela”. Tartea duenean idazten segitzen du Asensiok. Eleberria idaztea du erronka eta horretan ari da, pixkanaka.

+www.guaixe.eus

# Iñaki eta Joneren estreinakoa

**Gaur, 19:00etan, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean kontzertua emanen du bikoak**

**J**one Rubio Mazkieran (ahotsa eta gitarra akustikoa) eta Iñaki Aldasoro Lezea (ahotsa eta gitarra elektrikoa) musikari altsasuarrek sortu duten proiektu berria aurkeztuko dute gaur jendaurrean. Duela urtebete elkarrekin zerbait egin zezaketela aipatu zuten, eta geroxeago gauzatu zen bikoaren ideia. Jone astean zehar herritik kanpo dagonenez, entseguetarako aukera gutxi dute eta elkarren musika gustuak ezagutzen ari dira. Astean behin entseatzeko, ibilian, bertsioko sorta bat prestatu dute. Iñakik azaldu digunez, “bertsiok ez dute inongo gai



loturarik. Batez ere estilo edo sonoritate zehatz bat bilatzen saiatu gara kanta sorta horri osotasun bat emateko. Esan genezake, folk-a izan dela gure lokarria, nahiz eta Jone pop-rocketik eta ni punk edo hardcoretik gertuago ibili ohi izan garen beti”.

+www.guaixe.eus

# Rock and roll zirriborroak

**Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean Garabatosen kontzertua**

**R**ock & roll gogoko duen boskote bat da Garabatos taldea: Irati Lasak (ahotsa), Asier Palominok (baxua), Iñaki Gascok (gitarra), Gaizka Ocañak (gitarra) eta Mikel Manerok (bateria) osatzen dute. Guns and Roses, Marea, AC/DC, Platero y Tu, Los del Rayo... moduko taldeen doinuen zale, bertsiok egiten dituzte, oraingoz. Guztiak ere bestelako musika proiektuetan aritu izan dira. Mikel, Gaizka eta Asier, esaterako, Revolta taldean arituz ziren. Asierrek, gainera, beste zenbait taldetan jo izan du. Iratik, bestalde, Etxarriko abesbatzan abesten zuen. Iñaki Los del Rayorekin aritua da.

Boskotea osatuta, taldeak gaz-



te txokoko entsegu lokaletan entseatzeari ekin zion. Bi talde kide altsasuarrek ez izateak eta ikasketak tarteko, entseatzeko denbora gutxi dutela diote, “hala ere, ostialero entseatzeko saiatzen gara”.

Taldearen izena filosofia klase batean sortu zela azaldu digute tal-

dekideek: “Fitoren kanta batean pentsatzen ari zela Mikeli bururatu zitzaion. Klase produktiboa izan zen. Izen erraza da eta guztiok gogoko dugu”. Kontzertu gehiago emanen lituzke taldeak gustura.

+www.guaixe.eus

**Kaluxa**  
TABERNA • JATETXEA

Asteburuko menua  
Festetako menu berezia  
Astero aldatzen dugu

**20€**  
(kafea eta edaria barne)

Hartu eta eramateko aukera  
948 469 291 • URDIAIN

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

**NEREA BAKAIKOA**  
Ermiñeta kalea 4 • 948 567 331  
LAKUNTZA

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:  
tripota  
tripotxa  
mihia  
kalluak  
saltxitxak  
frituak

tel. 948 576 067

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 86%	euria: 58%	euria: 20%	euria: 5%	euria: 25%	euria: 78%	euria: 65%
Min: 8 Max: 11	Min: 9 Max: 12	Min: 9 Max: 15	Min: 6 Max: 22	Min: 9 Max: 15	Min: 7 Max: 12	Min: 6 Max: 14

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	32.5	5.5	0
Etxarri A.	31.8	3.2	0
Altsasu	32.5	4.5	0
Aralar	24.8	7.3	0
Urbasa	27.8	1.8	0

## : ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
18	25	2	9

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko

# bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gazte Zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gazte Zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

# >> 11 galdera

## Uxua Garciandia Lakuntzako odol-emaileen ordezkari berria

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



**1. Noiz erabaki zenuen odol-emaile izatea?**  
Betidanik ikusten nuen jendeak odola ematen zuela eta nik ere horren parte izan nahi nuen. Hemezortzi urte bete arte ezin zara odol-emaile izan. Orduan galdetzeraz joan nintzen, frogak egin eta baiezkoa eman zidatenean egin nintzen odol emaile.

**2. Familiarengandik datorkizu odol-emaile izateko nahia?**  
Ama aritu izan da odola ematen baina odol-emaile bezala nikez dut ezagutu. Izan ere, batzuetan osasun arazoak direla ezin da eman. Lakuntzara autobusa etortzen zen eta horrek ere animatu ninduen. Jendearengatik zer edo zer ona egiteko aukera duzu zure odola emanaz eta hori oso polita iruditzen zait.

**3. Zer sentitzen da odol-emaile izanda?**  
Odola emateak pertsona bezala bete egiten zaitu. Besteekiko elkartasuna izatea eta horretaz ohartzeari garrantzitsua dela uste dut.

**4. Lakuntzako odol-emaileen ordezkari berria zara. Gazteen artean odola ematea zabalduta dago?**  
Lakuntzan ez dago odol-emaile gazte askorik, ni izanen naiz ziu-rrenik gazteenetarikoa. Orain ordezkari naizen aldetik gazteen-gana, ez ezik gainerako jendearengana iristen saiatuko naiz, jendea animatuz.

**5. Igandean dominak banatu zenituzten Lakuntzan.**  
Bai, 25 eta 50 aldiz baino gehiago odola eman dutenak omendu nahi izan genituen. Horrelako kopu-

ruetara iristeko urteak behar dira.

**6. Adonako presidentek odol-emaile izatea eta gazteen presentzia nabarmendu nahi izan zituen ezta?**  
65 urtetik gora ezin da odolik eman eta gazteen presentzia oso garrantzitsua da, beharrezkoa, esanen nuke. Gazteen parte hartzea ezin bestekoa da.

**7. Zer nolako baldintza bete behar dira odol-emaile izateko?**  
Osasun ona izatea, hori da betekizunik garrantzitsuenetakoa. Pisu minimo bat ere bete behar da, kilo kopuru jakin batetik gora ezin da odolik eman, tentsioa ere ongi izan behar da, botikak denbora jarraian hartzen duen jendeak ere ezinen luke, eta 65 urte baino gutxiago izan behar dira. Baldintza horiek betetzen baldin badira edozein izan daiteke odol-emaile.

**8. Lakuntzako ordezkari berria zara, zer espero duzu ibilbide berri honetan?**  
Helbururik garrantzitsuenak momentu honetan, jende gaztearengana iristea da. Horregatik, jende gazteari deia egiten diot, guregana gerturatzeko eta galdetzeko. Nahi adina informazioa emateko prest nago. Aurreko ordezkariak, Jesus Floresek urte asko eman ditu honetan lanean eta bere bidea jarraitzen saiatuko naiz. Autobusa etortzen dene-

an gauzak antolatzen, bilerak egiten, zenbait gauzen ardura nik hartuko dut hemendik aurrera.

**9. Odol-emaile asko dago Lakuntzan?**  
Aurreko urteko datuei begira 130 emaile daude gutxi gorabehera herri osoan. 1.000 biztanleren bueltan dabil Lakuntza, eta kopuru polita dela iruditzen zait. Baina igotzea oso ongi etorriko litzai-guke. Horretan saiatuko gara.

**10. Garrantzitsua da odol-emaile izatea, ezta?**  
Bizitzak salba ditzakezu. Odolik gabe ezin gara bizi. Gure gizartean jende askok behar du odola, osasun arazoak, istripuak eta hamaika arrazoi direla. Odola emateak ez du inolako gasturik, ez du arazorik sortzen gure gorputzean, eta emaile izanda analisiak egiten dizkigute eta emaitzak etxera bidaltzen dituzte. Onuragarria dela ere esan dezakegu, odola berrituz doalako gure gorputzean.

**11. Nola ospatu zenuten festa?**  
Lakuntzako emaileak omentzeko zilarrezko eta urrezko dominak banatu genituen meza ondoren. Gero auzatea izan genuen eta bertan aurreko ordezkari Jesus Flores eta Vitori Urrestarazu omendu genituen, orain arte egindako lanagatik. Oso egun polita pasa genuen.

# ikaslearen agendak

## eta irakaslearen koadernoak

**GURE BALIO ERANTSIK:**  
Agenda hezigarria: esaera zahar, ilustrazio eta eduki didaktikoak | Orriaren beheko ertza zulatuta ikastetxeari aholkularitza

**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA  
diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.net